




Bizkaiko Kontserberetako langileek greba eguna zuten atzo jasaten ari diren egoera gogorra salatu eta herrialdeko hitzarmenaren alde. LAB, ELA eta UGT sindikatuek deituta, hitzarmenaren ultraktibitatea defendatzeko lehenengo epaiketaren egunean, elkarretaratzea egin zuten epaitegien aurrean. Arratsaldean manifestazioa egin zuten Bermeen.



Langile hauek 2013ko uztailaren 7arte Bizkaiko arrain kontserba eta gaztuen hitzarmenpean

erregulatzen zituzten beraien lan baldintzak. Aldiz, data honetatik aurrera (negoiazio kolektiboaren erreforma medio), patronalak (CEBEK eta NORPESCO) negoziazio mahaia alde batera utzi eta hitzarmen estataleko lan- baldintzak aplikatzen hasteko esan zien enpresei. Ondorioz, enpresa gehienak jada hitzarmen estataleko lan baldintza batzuk aplikatzen hasi dira, gutxinaka estatalera joz.

Bai 2003ko efikazia orokorreko hitzarmenak zein 2007ko efikazia mugatuko hitzarmenak ultraktibitatea dutela defendatzen dute. Beraz, orain arte Bizkaian dituzten lan-baldintzak aplikatzen jarraitzeaz gain, negoziazio mahaia ireki eta langileon lan-baldintzak kaxkartuko ez dituen Bizkaiko arrain kontserba eta gazituen hitzarmena exigitzien diote patronalari.

Beharrezkoa da sektoreko langile guztientzat oinarri izango den hitzarmena eta aldi berean, ez dute Madriletik inposatutako lan-baldintzarik nahi. Euskal herriko kalitatezko produktu hauek egiten jarraitzeko lan-baldintzak langileek negoziatu behar dituztela aldarrikatu dute.

Hemendik aurrera borrokan jarraituko dutela adieraz zuten, "negoiazio mahaia ireki eta Bizkaiko kontserberetako hitzarmena barriztu arte".

LAB sarean
{module[111]}